



# Mendaroko UDAL BULETINA

2024ko martxoa



## **Aurkibidea**

### **Osoko bilkurak ahobatez onartu zuen Palestinako herriaren genozidioaren aurkako mozioa**

### **Zubi zaharreko obrek trafikoa desbideratu dute Mendaron**

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakita, martxoaren 6tik aurrera trafikoa desbideratu zuten Garagartza auzotik kotxean irteteko. Apirilaren 2ko astean semaforoak jarriko dituzte zubiaren bi aldeetan.

### **Mendaroko Udala EUDELen adierazpenera batu zen Emakumeen Nazioarteko Egunean**

### **Landa bide publikoen ordenantzaren aldatzea**

Mendaroko Udalak aho-batez onartu du landa bide publikoen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantza aldatzea.

### **Mendaroko Udalak atzeratu egin du 2023-2027 Gobernu Planaren aurkezpena**

Datozen lau urteotarako udal gobernuaren jardunaren iparrorratza izango den dokumentua da Gobernu Plana. Udalak hartutako 75 konpromiso jasotzen ditu, eta datorren hilabetean aurkeztuko da.

### **Mendaron ere egin genuen korrika euskararen alde**

Oihu, barre eta negar artean pasa zuten mendarotarrek testigua eskutik eskura. Korrikak Mendaron egin zuen ibilbidea ikusgai dago udalaren Facebook atarian.

### **“Ziklikoki bizi” ikastaroa Mendaron, apirilaren 12an eta 26an**

Apirilaren 2ra arte zabalik dago ziklo menstrualaren oinarriak landu eta autolaguntzarako ikastaroan izena emateko epea. Ikastaroa Azpilgoetako Kultur etxean izango da, apirilaren 12an eta 26an, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

### **Apirilaren 2an hasiko da “Mendaron bizi, Mendaron erosi!” bono kanpaina**

Herriko 12 dendek hartuko dute parte, eta bonoa erosita herritarrek 20€ ordaindu eta 30€ kontsumitu ahal izango dituzte.



# Osoko bilkurak ahobatez onartu zuen Palestinako herriaren genozidioaren aurkako mozioa

Otsailaren 27an Udalbatzak ahobatez onartzen zuen hurrengo mozioa:

Palestinarrak beren lurraldetik kanporatu eta Israel legez kanpo okupatzen hasi zenetik 75 urte pasa direnean, azken 4 hilabeteotan euren armadak Gazako zatirik handiena suntsitu du eta 28.500 pertsona inguru hil ditu, horietatik gutxienez 17.000 haur, UNICEFen kalkuluen arabera, eta 68.200 zauritu utzi ditu. Gainera, beste 7.000 pertsona daude obra-hondakinen azpian. Etxebizitza-eraikinen erdia baino gehiago suntsitu dira, ospitale, eskola eta azpiegitura gehienez gain. Israelek ezarritako misilek eta setioak herritarrak ur, elektrizitate eta elikagai zerbitzurik gabe mantentzen dituzte ordutik, eta UNRWAK salatu duenez, 2,3 milioi biztanleen artean 2 milioi pertsona beren hirietatik bota dituzte, eta bien bitartean bonbardaketak eta lurreko inbasio militarra jasaten jarraitzen dute. Israelgo estatua palestinar biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso indiskriminatua onartezina eta gaitzesgarria da. Biztanleria zibila, inoiz helburu militarra izan ezin duena, blokeatuta dago munduko aire zabaleko kartzela handiena deitzen duten horretan. Aldi berean, asko kezkatzen gaitu Zisjordanian Israelgo armadak eta kolono juduek eragindako indarkeriak, bereizi gabe tiro eginez eta palestinarren jabetzak suntsituz; azken hori 2024/02/01ean ere aitortu zuen Biden administrazioak. NBEko agentziek hondamendi humanitariotzat jo duten egoera horren aurrean, Mendaroko Udaleko osoko bilkurak:

Uste du Israelgo Estatua biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso bereizi gabeak eta kolektiboak ez dituela inongo gertakarik justifikatzen, ezta Hamasek urriaren 7an populazio zibilaren aurka egindako eraso gordinek, onartezinak eta gaitzesgarriak direnak. Israelen erasoek milaka hildako, Gazako lurraldearen erabateko suntsipena eta biztanleria osoaren nahitaezko desplazamendua eragiten ari dira.

Eskatzen dugu su-eten osoa eta mugagabea, Gazako zerrendaren blokeoa etetea, eta herritarrak beren lurraldera itzultzea, bai eta Zisjordaniako herritarren aurkako erasoak amaitzea ere, joan den urriaren 7tik gogortu egin baitira.

Israelgo Estatuari exijitzen diogu atxiloketa administratiboaren babespean modu arbitrarioan atxilotutako presoak berehala aska ditzala (kargurik eta epaiketarik gabeko atxiloketa, mugarik gabe berritu daitekeena). 6.000 palestinar inguru atxilotu dituzte prozedura honen bidez, eta horien artean ehunka adingabe daude. Amnestia Internazionalak salatu du hori.

2023ko urriaren 7tik bere esku dituen bahitu guztiak berehala askatzeko exijitzen diogu Hamasi.

Nazioarteko legedia betetzea eta Israelgo Estatuak sistematikoki mespretxatu dituen NBEren ebazpenak betetzea eskatzen du.

Laguntza humanitaria etengabe eta mugarik gabe sartzea eskatzen dugu, herritarrei ura, elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratzeko aukera berrezarritz.

Espainiako Estatuko Gobernuari eskatzen diogu onar dezala Palestinako Estatuak; gaur egun, 139 herrialdek egin dute.

Eskatzen diegu Espainiako Estatuko Gobernuari eta Europar Batasunari Hegoafrikak GENOZIDIOAGATIK Nazioarteko Justizia Gortean jarritako demandarekin bat egin dezatela, eta Ukraina inbaditu ondoren Errusiaren aurka ezarritako zigorren antzekoak ezar ditzatela eta Israelekin harreman diplomatikoak, komertzialak eta militarrik eten ditzatela, nazioarteko legeria, NBE onartutako ebazpenak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzen dituzten arte. Nazioarteko Komunitateak ezin du beste aldera begiratu GENOZIDIO bat gertatzen ari den bitartean.

Palestinako bandera udaletxeko balkoian jartzea erabaki du, Gazako zerrendako herritarrak jasaten ari diren erasoek irauten duten bitartean.



## Zubi zaharreko obrek trafikoa desbideratu dute Mendaron

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakita, martxoaren 6tik aurrera trafikoa desbideratu zuten Garagartza auzotik kotxean irteteko. Apirilaren 2ko astean semaforoak jarriko dituzte zubiaren bi aldeetan.

Martxoaren 6tik aurrera, herrigunetik ateratzeko, autoak Mendarozabal auzoaren atzetik joan behar dira ospitaleko bideraino, eta gero handik zubira jaitsi.

Mendaroko Ikastola parean *Derrigorrezko norabidea* adierazten duen seinalea jarri dute, herrigunetik datozen kotxeak Kilimon hiribidearen amaieran ezkerrera jotzera behartuz. Hau da, zubia eta ikastola arteko tramuan errei bakarra dago da, eta herrira sartzeko da, ezin da erabili herritik ateratzeko.

Oinezkoei dagokienez, orain arte, zubian beti egon da espaloia bat irekita. Apirilaren 2ko astean, ordea, itxi egin beharko dute oinezkoentzat espaloia. Seguruenik, bi hilabetez egongo da itxita. Foru Aldunditik esan dute garrantzitsua dela jendeak debekua errespetatzea, segurtasunez lan egin ahal izateko eta ez dadin ezustekorik egon.

Bukatzeko, jakinarazi dute uda aldera arte iraungo duela trafikoaren aldaketa horrek, obrak amaitu arte hain zuzen.





# Mendaroko Udala EUDELen adierazpena batu zen Emakumeen Nazioarteko Egunean

2024ko martxoaren 8rako EUDELen adierazpena:

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Mendaroko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministearaino.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa**-guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezten.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea ikuspegi intersektionalaz, bereziki, adineko emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alarguentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoa** ezagutaraztea.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- **BERDINSAREA** sarearen bidez, EUDEL-en eta Emakunderen laguntzarekin, udalerririk emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea**.



# Landa bide publikoen ordenantzaren aldaketa

Mendaroko Udalak aho-batez onartu du landa bide publikoen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantza aldatzea.

2020ko uztailaren 29an Mendaroko Udalak landa bide publikoen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantza onartu zuen. Bertan, atoidun kamioiei galarazi egiten zitzairen landa publikoak erabiltzea. Urte hauetan hainbat eskaera egon dira debeku hori kentzeko eskatuz, eta gaia aztertu ondoren, otsailaren 27an Mendaroko Udaleko Udaltzarak aho-batez onartu zuen debekua altxatzea.

Udaltzaren erabakia iragarki bidez jarri da jendaurrean, baita udal-iragarki taulan, udalaren web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere. Apirilaren 23a arte egongo da jendaurrean, eta epe horretan interesdunak espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izango dute.





# Mendaroko Udalak atzeratu egin du 2023-2027 Gobernu Planaren aurkezpena

Datozen lau urteotarako udal gobernuaren jardunaren iparrorratza izango den dokumentua da Gobernu Plana. Udalak hartutako 75 konpromiso jasotzen ditu, eta datorren hilabetean aurkeztuko da.

Gobernu plana martxoaren 20an zen aurkeztekoa, baina azken momentuko eragozpenak medio, udal gobernuak atzeratzea erabaki zuen. Oraindik ez da zehaztu zein izango den aurkezpenaren behin betiko data.

Mendaroko udal gobernuarentzat konpromiso eta transparentzia ariketa bat da herritarrei Gobernu Plana aurkeztea. 75 neurri zehatz jasoko ditu martxoaren 20an aurkeztuko duten planak, eta gobernu taldearen iparrorratza izango dira.

Plan dinamikoa izango da: aipatutako 75 neurriez gain, gai gehiagori ere helduko diola dio gobernuak. Behar berriak sortuko direlako eta herritarren eta eragileen ekarpenak jasotzen jarraituko dugulako.

Gainera, plan neurgarria izango da: konpromisoa hartuko dute neurrien nondik norakoez eta planaren beraren betetze mailaz maiztasun zehatz batez herritarrak informatzeko. Enetz Ezenarro alkatearen hitzetan, “udal jardueran gardentasuna ezinbestekoa delako, eta gainera herritarren eskubidea delako egin dugu plan hau”.

Bukatzeko, Mendaroko Udalak jakinarazi nahi du herritarrekin maiz bilduko direla, udalean esku artean dituzten gaiak modu gardenean azaltzeko, eta denon artean Mendaro aurrerakoiago bat egiten asmatzeko. Garrantzia ematen diogulako gauzak egiteko moduari, elkarlana oinarria izan behar duelako.



## **Mendaron ere egin genuen korrika euskararen alde**

Oihu, barre eta negar artean pasa zuten mendaroarren testigua eskutik eskura. Korrikak Mendaron egin zuen ibilbidea ikusgai dago udalaren Facebook atarian: <https://fb.watch/r3Cxbsr5jX/>.

Korrika kulturala ere ospatu zen Mendaron. Martxoaren 17an *Bote prontoan* antzerki musikatua eskaini zuten Maria Zubimendi musikariak eta Esti Curiel aktoreak; martxoaren 22an Josu Martinezen *Bizkarsoro* filma proiektatu zen, eta martxoaren 24an Debako Goaz antzerki taldeak *Lotura Basatiak* obra antzeztu zuten.

**"Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako izanen da eta guk badakigu sua egiten. Biba KORRIKA! Harro Herria!"**



## **“Ziklikoki bizi” ikastaroa Mendaron, apirilaren 12an eta 26an**

Apirilaren 2ra arte zabalik dago ziklo menstrualaren oinarriak landu eta autolaguntzarako ikastaroan izena emateko epea. Ikastaroa Azpilgoetako Kultur etxean izango da, apirilaren 12an eta 26an, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaroa Askaziren atzean dagoen Jaione Guisapolak hezitzaileak emango du. Azken urteotan elikadura ziklikoan eta, batez ere, heziketa menstrualean hezten dihardu Jaionek. Saiok euskaraz izango dira eta izen emateak hamar euroko prezioa du (Izen ematea Mendaroko Udalaren webgunean: <https://www.mendaro.eus/eu/ziklikoki-bizi-ikastaroa> ).

Ikastaroaren helburu nagusia bertaratutako emakumeek hilekoaren zikloa ezagutu eta norberarenera onartuz etekina ateratzen ikastea da. Hilekoa beldurrik gabe eta naturaltasunez biziz, orekan bizi ahal izateko.

Ikastaroak ere baditu helburu zehatzagoak: hilekoaren zikloaren funtzionamendua ezagutzea, zikloan zehar sor daitezkeen gora-behera fisiko, emozional zein psikikoei aurre egiteko estrategiak barneratzea edota taldeko beste partaideen esperientzien bitartez errealitateaz jabetu eta ahizpatasun eta sororitate gune bat sortzea.

Ikastaroa presentziala izango da; gertutasuna eta konfiantza funtsezko ezinbestekoak baitira ikastaro honetan konfiantzazko gune bat eraiki ahal izateko.



## **Apirilaren 2an hasiko da “Mendaron bizi, Mendaron erosi!” bono kanpaina**

Herriko 12 dende hartuko dute parte, eta bonoa erosita herritarrek 20€ ordaindu eta 30€ kontsumitu ahal izango dituzte.

Apirilaren 2tik maiatzaren 2ra arte egongo da martxan Mendaroko bono kanpaina. 12 dendetan erabili ahal izango dira bonoak: Farmazia, Morroskillo, Coviran, Ederki, Galle-tiak, Roteta, Anton, Sonia, Leire, Saint Gerons txokolatea, Lutximak, Naia.